

# noaua



## "AKTORE EZAGUNAK DAUDE FILMEAN, BAINA GOGOAZUEN JENDEARI ERE AUKERA BAT EMAN NAHI NION"

Alex Tellok 'Animo' bere lehen filma aurkeztuko du NOAUA Kulturaldian / 16-17 or.

ARGAZKIA: ALEX TELLO




NOAUA

**"Goazen kalera, Usurbil" dinamika datorren astean abiatuko da berriro** / 05



NOAUA

**Odol Emaileen Elkarteak bazkari batekin borobildu zuen 50. urtemuga** / 09



NOAUA

**Odolaren Mintzoaren agurra, herri sorkuntza oparoaren erakusgarri** / 12



ORBELDI

**Orbeldi Dantza Taldearekin abiatuko da aurtengo NOAUA! Kulturaldia** / 22

**ATXEGA JAUREGIA**  
JATETXEA

EGUNEKO MENUA  
EGUNEKO PLATERA  
ASTEBURUKO MENUA  
KARTA  
RAZIOAK  
OGITARTEKOAK  
PINTXOAK

Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 150

**FUNERARIA GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

**943 36 21 63 (24H)**

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE...•ERRAUSKETAK

www.funerariagonzalez.es

**ITZIRA**  
ERAIKUNTZAK

943 530 337  
607 119 313

·gremioen koordinaketa ·berritze lanak  
·sukaldeak ·komunak ·mota guztietako obrak  
·aurrekontua konpromisorik gabe

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

**Uzbekistan**

IRTEERA 2025eko apirila

**NOAOA**  
BIDAIAK

Noaok gidatutako talde bidaiak.  
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

## Basurdea bisitan

Whatsapp taldeetan egunotan hedaturiko bideoko irudia duzue albiste honi atxikitakoa. Bertan duzue protagonista nagusi eta bakarra; basurde bat. Beste behin, mendi aldetik behera jaitsi eta herri-gunera gerturatu dena. Txokoalde eta Santuenea arteko erribera inguruan ikusi dute. Ez da halakorik ikusi ahal izan den lehen aldia. Abendu hasieran, herrikide batek gauze egin zuen topo basurde batekin, Santuenetik Zubietara bidean. Covid19aren garaian ere, herri erdiguneraino hurbildu izan ziren.



Azkenaldian, Txokoalde eta Santuenea arteko erriberan ikusi izan dute basurdea.

### Garbigune mugikorra, Txokoalden

Urtarrilaren 30etik aurrera, garbigune mugikorra Txokoalden izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrera-bilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Otsailaren 6an osteguna, garbigune mugikorra Santuenera eramango dute.

### Kzguna arratsalde zabalduko dute otsailean

- Otsailak 3-14, 18:00-20:00 "Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi".
- Otsailak 17-28, 18:00-20:00 "Ofimatika tresnak-LibreOffice".

**Informazio gehiagorako:**  
943 023 684

### Garraio zerbitzuen sare publikoan, 12 urte azpikoek doan

Urtarrilaren 30etik aurrera, 12 urtetik beherakoek doan bidaiatu ahal izango dute Mugi sisteman txertaturiko garraio zerbitzuen sare publikoan. Horretarako, txartel pertsonalizatua tramitatu beharko dute Mugiren bulegoetan. Informazio gehiago, [mugi.eus](http://mugi.eus) atarian jaso dezakezue.

### Hezkuntza publikoari lotutako greba egunak

- Hezkuntza publiko ez unibertsitarioko irakasleak: urtarrilak 22-23 eta otsailak 26-27.
- Haurreskola Partzuergoko langileak: urtarrilak 28-29 eta otsailak 12-13.
- Sukaldariak eta garbitzaileak: urtarrilak 30-31 eta otsailak 19-20.

**noaua**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkarte  
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
[elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)

**Elkarteko lehendakaria:**  
Ugaitz Agirre.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:**  
Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio kontseilua:**  
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,  
Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goiena.  
**Publizitate arduraduna:**  
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321  
[publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)  
**Banatzailleak:**  
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 2.980 ale.  
**Imprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu  
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
[erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Usurbilgo Udala**

IRITZIA



UGAITZ AGIRRE

## Zeruak eta lurrak (5)

**M**arkesaren bisaia belztuta zegoen. Usurbildar guztien aurrean eredu izan behar zuten, eta bost zorigaitzokoei egin asmozutenaren adinako zigorra ezarri behar. Hotz-hotzean pentsatzeko ere ez zegoen tarterik, eta usadioei heldu zion.

Urkamendian egin zuten hitzordua arratsalderako. Pregoi-lariak akusazioak irakurri zituen jendaurrean, eta apaizak azken igurtziarekin bedeinkatu banan-banan. Beletzar bat urkamendiaren zutabe gainean pausatu zen, karranka, augurio txarrak erakartzen zebilela zirudien.

Lepoa sokaz inguratzeaz gain, begiak ere estali zizkien. Inork ez dio heriotzari begietara begiratu nahi izaten. Are, askorenak malkoz gorrituta zeuden, eta tanta haiek errealitate gehiago distorsionatu, lausotu zezaketen. Kanpandorreko hotsek jarri zuten melodia, eta arrats gorian, belaze guztiak goriz tindatu ziren.

Markesaren alaba txikienak ez zuten inoiz halakorik ikusi, eta bihotza erabat asaldatu zitzaion. Etxean, aitari zergatia eskatu zion. Mundua horrela zela erantzun zion, baina ez zen horrekin aski. Absurdoairuditzen zitzaiola argudiatuagatik, "Oraindik txikia zara", erantzun zion. "Handitzen zarenean ikusi eta ikasiko duzu". Markesak txiki deitu bazion ere, hemezortzi urteak ate joka zituen, eta aitak

nahi izan ez arren, argia itzale-  
tik bereizteko gai zen.

Bestelako eskandalu bat zertorren alboko gelatik. Alaba zaharrenak senargai nondik ibili zen jakin nahi zuten. Medikuen gomendioz, naturaz gozatzerako joan omen zen. Esaten zion errio bazterrean paseoan ibilia zela, baina alabak ez zion sinesten. "Perfume eta tabako kiratsa darizkizu!" Etxerako bidean taberna batean gelditu zela erantzun, baina engainurako aitzaki hobeak beharko zituen. "Zer uste duzu, usurbildar hauek ere jende pertxenta da. Gustatzen zaizkie hiriko modak". "Uste duzu tabernan egongo zirela bost herritar urkatu berri dituztenean?" Mutil gaztea zer esan jakin gabe gelditu zen, hormaren eta ezpataren artean. "Uste duzu niri gustatzen zaidala hemen egoitea? Nazkagarria da! Botagalea ematen didate, baina sendiaren parte naiz, eta ez daukat beste erremediorik. Itxurak egitea besterik ez dago. Beraz, hasi zu ere antzerkian, edo orain arteko pagotxa amaituko zaizu".

Are zuriago utzi zuten hitz horiek. Alaba zaharrenak on-

**"SUKAR AMETSETAN BIZI ZEN, PARANOIATIK PARANOIARA JAUZIKA"**

dotxo ezagutzen zuen bere senargai. Ahobero eta kaskarin galanta. Ez zen familiarik onenekoa, baina harremanak zituzten, eta beharrezkoak izan ohi dira zuhaitza erortzen hasten bada. Gauzarik okerrenak irudikatzen trebezia berezia zeukan, eta horiei aurre hartzen ikasi zuen meneko alaba zahar-raren moztorropean. "Barra-biletatik hartuta zauzkat, beraz, argi". Eta ez ziren hitzak bakarrik, literalki heldu zizkion, eta lehen aldiz, mutil hark ikara sentitu zuen uestezko neska otzan haren aurrean.

"Aizu, Katalina, ikusi al duzu Helena?". Anaia zen, zertxobait aztoratuta. Jardinean edo egongo zela erantzun zion. Anaiak buruarekin ezetz, etxe guztia miatu zuela, baina ez zegoela neska gaztearen arrastorik. Lasai egoteko eskatu zion, halako batean azalduko zela. "Eta bahitu badute bost heriotzengatik?" Anaiak ere txarrean pentsatzeko joera zuen. Hala ere, fantasiaz lepo, bizitza ipuin bat balitz bezala. Sukar ametsetan bizi zen, paranoiatik paranoiara jauzika.

Iradozikuna laster bihurtu zen susmoa, eta susmoaren natura tarteko, kutsagarria oso, kalez kale zabaldu zen herri guztian zehar: markesaren alaba txikia bahitu zuten usurbildar erresuminduek. Markesak berak alkattea mehatxatu zuen alaba agertu ezean, ez zuela harri bakar bat altxa gabe utziko.

## Osasun sistema publikoa babesteko manifestazioa

"Promesa asko entzuten ditugu, baina ez dugu aldaketarik ikusten", salatu dute Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformek kaleraturiko adierazpenean. "Aitzitik, murrizketak eta pribatizazioak ugaritu egiten dira", gaineratu dute. Honenbestez, osasun sistema publikoa, doakoa, unibertsala eta kalitatezkoa bermatzea defendatzen segitzea beharrezkotzat jotzen dute eta manifestazio bana antolatu dute otsailaren 1ean, Osakidetza lurraldeko hiru hiriburuetan; Donostian, Bilbon eta Gasteizen. Usurbildik gertuen, Gipuzkoako hiriburuko arratsaldeko 17:00etan abiatuko da Bulebarretik. Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak bat egin du deialdiarekin.

### "Osasunerako eskubidea arrisku larrian dago"

"Manifestu hau sinatu dugun eragileok uste dugu beharrezkoa dela mobilizazioei eustea, egoera hori salatzeko eta osasun-sistema publikoa defendatzeko", zehaztu dute manifestazioaren antolatzaileek. Horregatik, "otsailaren 1ean hiru herrialdeetako hiriburuetan (Bilbo, Donostia eta Gasteiz) egingo diren manifestazioetan parte hartzerako deitzen dugu". Izan ere, ohartarazi dutenez, "osasunerako eskubidea arrisku larrian dago. Azken urteotan, Eusko Jaurlaritzaren estrategia orokorra garatzen ari da osasun-sistema publikoa desegiteko eta pribatizazioa bultzatzeko".



Unai Gaztelumendiren komiki-tira, TOKIKOMeko hainbat hedabideren eskutik.



Otsailaren 4an abiatuko da herri ekimena. Asteartero, goizeko 10:30ean abiatuko dira.

# Bueltan datoz astearteroko paseo osasangarriak

Izenik eman gabe, herritar orok parte hartzen segi ahalko du "goazen kalera, Usurbil" dinamikan.

Otsailaren 4tik maiatzaren 27ra arteko eskaintza prestatu dute Usurbilgo Udalak, Udaregi ikastolak eta Aginagako zein Zubietako eskolek, Oinarrizko Lanbide Heziketarekin eta Arrate, Gure Pakea zein Gure Elkartea jubilatuen elkarteekin batera. Iaz bezala, txandakatu egingo dira ibilbidion eremuak. Bi astean behin Usurbilgo erdigunean egingo dira paseo hauek eta haietako batzuk Kalezarko zaintzadun etxebizitzan auzunetik edota Eguneko Arreta Zerbitzuetik igaroko dira. Kasu horietan, paseo amaierako hamaiketa-

koa gune horietan dastatuko dute parte hartzaileek. Gainerako astearteetan, Aginagan, Santuenean edota Zubietan egingo dira.

Estreinakoa hain zuzen, otsailaren 4an egingo dena, Aginagako eskola atariko plaza-tatik abiatuko da. Santa Ageda bezpera izanik, eskolak urtero egin ohi duen lurra esnatzeko ohitura zahar honi lotutako kalejira egin ahalko dute paseokoek. Kantuan aritzeko aukera izango dute. Orduetgia ohikoa izaten segiko du; 10:30-12:00 artean egingo dira paseo hauek, tokian

tokiko frontoitik. Amaitu berri, Oinarrizko Lanbide Hastapeneko sukaldaritzako ikasleek prestatutako hamaiketako gozoa dastatuz bukatuko dute irteera bakoitza.

## Elkar zaintzea

Herri zaintzailegoa izateko bidean bere ekarpena egiten duen dinamika da honako hau. "Ariketa fisikoa egiteaz gainera, belaunaldi artekotasuna sustatzea eta elkarren arteko zaintza eta harremanak bultzatzea ditu helburu Goazen kalera, Usurbil ekimenak", antolatzaileen esanetan.

## "ELKARREN ARTEKO ZAINZA ETA HARREMANAK BULTZATZEA DITU HELURU GOAZEN KALERA EKIMENAK"

Iaz berreskuratu zuten garai bateko egitasmo hau eta herri erdigunetik Usurbilgo txoko ezberdinetara hedatu zuten dinamika hau, tokian tokiko eskola eta jubilatuen elkarteekin lankidetzan. Momentuz, 2025ari begira, oraingoz hamaihuru ibilaldi egingo dituzte otsailaren 4tik maiatzaren 27ra.

### "Goazen kalera, Usurbil"

**Egutegia:** otsailaren 4tik maiatzaren 27ra.

**Noiz:** asteartero.

**Orduetgia:** 10:30-12:00.

**Abiapuntua:** tokian tokiko frontoia.

### Otsaila

4: Aginagan, Santa Ageda bezperako kantu-jira.

11: Usurbil erdigunean. Egurtzegitik igaroko da.

18: Santuenean Udaregi ikasleekin.

25: Usurbil erdigunean. Eguneko Arretatik igaroko da.

### Martxoa

11: Zubietan.

18: ekintza berezia Usurbilgo erdigunean. Ibilbidea ez da Egurtzegitik ezta Eguneko Arretatik pasako.

25: Aginagan.

### Apirila

1: Usurbil erdigunean. Egurtzegitik igaroko da.

8: Santuenean Zubietako ikasleekin.

### Maiatza

6: Usurbilgo erdigunean. Eguneko Arretatik igaroko da.

13: Zubietan.

20: ekintza berezia Usurbilgo erdigunean. Ibilbidea ez da Egurtzegitik ezta Eguneko Arretatik pasako.

26: Aginagan.

 943 361182  
**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL

 **ANORGA TXIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**  
• komertzial instalazioak • beira bikoitza • segurtasun beirak • ispiluak  
• dutxa-itxiturak eta irristailuak • barandak • kristal mota guztiak...  
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

  
**Otar-Goxo**  
Elikagaiak  
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81



Ipuin laburrak izango dira, 650 hitzez osatuak gehienez ere. Gaia librea da. Irudian, iazko lehiaketako sarituak.

# III. Literatura Lehiaketan parte hartzeko deia

Etumeta AEK euskaltegiak hirugarrenez, euskaltegiaren izena daraman literatura lehiaketa antolatu du. Zuen sormen lanak otsailaren 3tik apirilaren 11ra aurkeztu ahalko dituzue. Segidan dituzue, Etumeta AEK euskaltegitik helarazitako txapelketako oinarrien berri:

### Arau orokorrak:

- Ez da inolako pertsona zein kolektiboren aurkako eduki iraingarririk onartuko. Baldintza guztiak onartzea dakar parte hartzeak, lehen hau barne.
- Parte hartu ahal izateko beharrezkoa da 18 urte beteak izatea lana bidaltzeko unean, eta Usurbilen erroldatua egotea edota Etumeta AEK euskaltegian matrikulatua.

### Lanak:

- Ipuin laburrak izango dira, 650 hitz, gehienez.
- Times New Roman letran idatziak, 12 neurrian, espazio bikoitzarekin.
- Gai librean idatziko dira.
- Lanak aurrez argitaratu ga-beak izango dira, baita lehiaketa batera bidali gabeak ere.
- Euskaraz idatziak behar dute. Tokian tokiko hizkera ere erabili ahal izango da.

### Lanen aurkezpena:

Bi dokumentu bidaliko dira usurbil@aeck.eus e-posta helbidera:

- 1. dokumentua: Ipuina bera, marka identifikagarririk gabe, PDF formatuan. Artxiboaren izena ipuinaren izenburua bera izango da: "IZENBURUA.PDF".
- 2. dokumentua: Parte hartzailearen datuak, hau da, izena, bi abizenak, jaiotze data, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa, PDF formatuan. Artxiboaren izena ipuinaren izenburuarekin berarekin identifikatuko da: "IZENBURUA.DATUAK.PDF".
- Etumeta AEK arduratuko da epaimahaikideei lanak bidaltzeaz, identifikatu ez dituzaten, baita, epaia ebatzi ondoren, hura bere egilearen datuekin lotzeaz ere.

### Epeak

- Lanak bidaltzeko: otsailaren 3tik apirilaren 11ra arte, biak barne.
- Sari banaketan egingo da irabazlea publiko, irabazleari emailez jakinaraziko zaio aurretiaz.
- Sari banaketa ekainaren 4an egingo da.

### Sariak

- Txapelduna: 150 euroko baliodun saskia, Hurbilgoren eskutik.
- Aipamena: 70 euroko baliodun saskia, Hurbilgoren eskutik.
- Epaimahaikideak hiru izango dira, eta euskaltegiak aukeratuko ditu. Haien erabakia aldaezina izango da.
- Parte hartzaile guztiak gonbidatuta egongo dira sari banaketara, eta oroigarri bana emango zaie.

## "Azalerako ipuinak", Saioa Bikandiren eskutik

Iaz ere antolatu zuten halako topaketa bat eta "interes handia piztu zuenez, aurten ere antzeko bat eskaintzea merezi duela pentsatu dugu". Horren haritik, Saioa Bikandiren eskutik, "Azalerako Ipuinak" izeneko saioa programatu du Sutegi udal liburutegiak otsailaren 5ean, 17:30ean liburutegian bertan.

### 0-3 urte artekoentzat

"Giro lasaia eta atsegina sortuko dugu ukimena, ipuinak, poemak, kantuak, jolasak, liburuak... baliatuz. Entzumena, kontaktua, ikusmena, usaimena eta dastamena literaturarako ate ireki bat izan baitaitezke", azaldu dute antolatzaileek. 0-3 urte arteko eta haien guraso edota zaintzaileei zuzenduriko hitzordua hiru ordu laurden ingurukoa izango da.

### Plazak, mugatuak

Antolatzaileek plaza kopurua mugatua izango dela ohartarazi dute. Horregatik, izena aurrez eman beharko da, liburutegian bertan.

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
• eguneko menua • asteburuko menua  
• oilasko erreak, ogitartekoak, raziok...  
• paellak enkargoz!  
**943 54 43 12** Zubiaurrenea 6, Usurbil.

**ANDATZA TABERNA**  
EGUNEKO MENUA  
ASTEBURUKO MENUA  
KARTA  
RAZIOAK  
OGITARTEKOAK  
8:00-20:30 Astelehenetik - Asteazkenean  
8:00-23:00 Ostegunetik - Igandera  
Kaleazar Auzoa 12, 08, USURBIL. Tel 943 73 20 27

**Okindegia-Gozotegia**  
**LABE-GOXO**



Aroztegiako proiektua gerarazteko 2021ean eginiko mobilizazioetako bat.

# Aroztegiako proiektua geratzeko deia

Aroztegiako proiektua gerarazi eta haren aurkako borrokan auziperaturiko zazpi lagunei babesa adierazteko manifestazioa antolatu dute larunbatean Iruñean. Hara joateko autobus zerbitzua antolatu du herritar talde batek.

"Zigortu nahi dutena da gure burua defendatzeko, herri bezala erabakiak hartu ahal izateko edota lurra defendatzeko eskubideak". Horregatik, berebiziko garrantzia du deitzaileentzat, "Lurraren defentsan, kriminalizaziorik ez. Aroztegiagelditu!" aldarripean, otsailaren 1ean Iruñean, 16:00etan epaitegi paretik antolaturiko manifestazioan parte hartzeak. Usurbildik ere herritar talde batek hara joateko autobus zerbitzua antolatu du larunbat eguerdiko 12:00etan Oiarde kiroldegitik. Aurrez eman behar da izena Aitzagan.

## Hogei urtez borrokan

Baztango bailaran, 340 biztanleko Lekarozen Aroztegia jauregi zaharraren bueltan "228 familiabakarreko etxebi-

zitza, 4 izarreko luxuzko hotela eta golf zelaia egin nahi dute herritarren borondatearen kontra". 20 urte daramate proiektu hau geratzeko borrokan. Testuinguru horretan, 2021ean egindako kanpaldi batean parte harturiko zazpi lagun epaituko dituzte maiztaren 19tik 23ra. "Orotara 20 urteko kartzela zigorra eta 56.000 euroko zigorra eskatzen zaie".

Egitasmo hau planteatu zen garaitik bertatik sortutako herri plataformaren bidez borrokatu dira urteotan guztian haren aurka. Helegite bidez gerarazi nahi izan zuten. 2013an epai batek "legez kontrakoa zela" ere ebatzi zuen. Galdeketa bidez ere herritarren gehiengoa aurka agertu zen. 2011 aurretik, halere, udal barruan ezker abertzaleko

hautagai-zerrenden legez kanporatzeen garaian, gehiengoa aldekoa zen. Errealitate hau irauli zen gerora, baina orduko Nafarroako Gobernuak "Udalez gaindiko eragina zuen plan bezala izendatu zuen". Hala, proiekturako lur gehiengo haienganatzea lortu zuten. Horrekin batera, hogei urteko baimena eman zitzaizkien (2019an berritutakoa) sustatzaileei egitasmo hau garatzeko, Aroztegiako proiektua geratu eta

**"OROTARA, 20 URTEKO KARTZELA ZIGORRA ETA 56.000 EUROKO ZIGORRA ESKATZEN ZAIE"**

auziperatuari babesa emateko osatua duten batzordetik adierazteko eman dutenez. Tarte horretan, "beste herri galdeketa bat egin zen Baztanen. Gehiengoa proiektuaren eta haren udalez gaindiko izendapenaren aurka agertu zen. Halere, Nafarroako Gobernuak aurrera jo zuen". 2021ean, "baimen batzuk falta zituztela", hondeamakinak zuhaitzak botatzen hasi ziren. "Egunero joaten ginen herritar batzuk obrak gelditzera, baina berriz hasten ziren gero", aipatu bilgunetik oroitarazi dutenez. Testuinguru hartan egin zen aipatu kanpaldia. "Euskal Herriko toki askotatik etorri zen jendea", gogorarazi digute. Salatu dutenez, lehenago ere pairatutakoak ziren jazarpenari, orduetik isun andana heldu zitzaizkien, eta azkenean, zazpi lagunena kontra jo dute. Proiektuaren sustatzaileek "43 milioi euroko konpentsazioa eskatzen diete Nafarroako eta Espainiako Gobernuei. Ez badute lortzen guri kenduko digute". Ondorioz, "horrek Euskal Herrian aurrekari bat sortuko du, non borroka guztiak baldintzatuko dituen". Horregatik ikusten dute ezinbestekoa, "Euskal Herri osotik herri bezala erantzutea eraso honi, ikusten dugulako ez dela soilik gure kontrakoa, herri oso baten aurkakoa baizik". Herri mugimendua edota lurrraren defentsa kriminalizatu nahi dituztela gogorarazi digute.

## Batzeko deia

Orain arte jasotako babesa eskertu dute. "Ikaragarria izaten ari da, oso pozik gaude. Horrek indar handia ematen digu, ez soilik guri". Izan ere, etorkizuneko borroketarako garrantzitsutzat jotzen dute elkartasun hau bistaratzeko. Larunbatean, auziperatuen absoluzioa eta Aroztegiako proiektua geratzeko deia egin dute. "Herritarren borondatea betetzea eskatzen dugu".

# Musika instrumentuak sortzeko tailer bat iragarri dute Zumarten

Usurbilgo musika eskola ospakizun betean da. 40. urtemuga ospatzeko hainbat ekitaldi iragarri ditu. Musika instrumentuak sortzeko tailerra izango da guztien artean berritzaileena. Otsailaren 15ean egingo da, Zumarteren egoitzan.

Otsailaren 15ean egingo da tailerra, "Zumarte ezagutu, instrumentuak sortu" izenburupean. Eskulanari ekin aurretik, bisita gidatu bat egingo dute, Zumarte Musika Eskolaren egoitzaren eskaintzaren berri emateko, eta egoitza barrutik deskubritu ahal izateko.

"Oraingo honetan, Zumarte Musika Eskolak gonbidapena luzatzen die herritarrei beren instalazioak bisitatzeko eta egun horretarako bereziki antolatutako jardueretan parte hartzeko", ohar bidez jakinarazi dutenez. "Programari hasiera emateko, bisita gidatu bat egingo dugu Zumarteko eraikinean barrena".

Bisita horretan, instalazioei buruzko informazioa emango


da eta "Zumarteko espazio guztiak bisitatu dira".

## Irakasleek ere hartuko dute parte bisita gidatuan

Otsailaren 15eko bisitan, eskolako irakasleak ikasgeletan izango dira, "eta Zumarten irakasten diren musika-tresnak aurkeztuko dituzte. Bertarazten direnek ere aukera izango dute instrumentuak giro hurbil eta parte-hartzailean probatzeko".

## Marakak, flauta bat edo korneta bat eraikitzeko aukera

Bisita gidatuaren ondoren hasiko da tailerra. "Gaztetxoei esperientzia berezi bat eskaintzeko helburuarekin, adin talde ezberdinei egokitutako instrumentuak sortzeko tailerrak prestatu ditugu".



Izen-ematea otsailaren 3an irekiko da eta 9an itxiko da.

Ildo horretan, hiru jarduera antolatuko dira: 4 eta 7 urte bitarteko haurrentzako marakak sortzea, 8 eta 10 urte bitartekoentzat flauta bat egitea eta 11 eta 12 urte bitartekoentzat korneta bat egitea".

Tailer bakoitzean gehienez ere 10 lagunek eman ahal izango dute izena. Eta horretarako ezinbestekoa izango da inskripzioa aldeztatik osatzea.

Jardunaldi honek bertaratuakoen artean sormena eta

musikarekiko interesa sustatzea du helburu, "baita eskolaren eta komunitatearen arteko loturak sendotzea ere".

## Izen-ematea

Izen emateko epea otsailaren 3an hasi 9an amaituko da (biak barne). Horretarako, mezu bat bidali behar da bulegoa@zumarte.eus helbidera. Bertan zehaztu behar dira partehartzailearen izen-abizenak eta adina.

# Erromeria eta bertso-afaria Aginagako Eliza Zaharrean

"Negu hotz eta ilunari aurre egiteko plan eder batekin gatoz oraingoan", iragarri dute Aginagako Eliza Zaharra elkargunetik.

Erromeriaz eta bertso-afariatz giroturiko larunbat arratsalde eta iluntzea antolatu dute otsailaren 15erako Aginagako Eliza Zaharrean:

## Otsailak 15, larunbata

• 18:00 Erromeria Ostolaza eta Larrañagarekin. Sarrera, doan.

• 21:00 Bertso afaria. Bertsolariak: Andoni Egaña, Julio Soto eta Nerea Elustondok.

Menua: iberikoak, pateak, baserriko oilaskoa parrilan, txerri saiheskiak parrilan, Eceizako pastelxoak. Ogia, kafea eta edariak.



Andoni Egañak, Nerea Elustondok (argazkian) eta Julio Sotok abestuko dute.

• Sarrera 30 eurotan eskura daiteke usurbilkultura.eus plataforman edo Aginagako Eliza Zaharra elkarguneari

bestela. Azken honetan, astelehenetik ostiralera salgai, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitartean.





Bazkari batekin eta zortzi emaile omenduz borobildu zuen 50. urteurrena Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak.

**Omendutako emaileak**

**25 odol-emate**

Ana Maria Aizpurua Zabala  
Elisabet Aperribai Basterretxea  
Maria Isabel Izaguirre Beloqui  
Elena Rikondo Saenz

**40 odol-emate**

Mertxe Aizpurua Izagirre  
Araitx Maeztu Maiz  
Josune Urkola Larrarte

**60 odol-emate**

Ane Agirre Arruti

# Odol-emaileei gorazarre

50 urte bete dituen Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak ospakizun zikloa borobildu zuen urtarrilaren 26an Artzabalaren eginiko bazkariaren bueltan.

Otordu horretan, gainera, odol-emaile diren hainbat herritar omendu eta eskertu nahi izan zituzten, bizitzeko

beharrezkoa dugun odola emateko haien elkartasun eta eskuzabaltasunagatik. 25, 40 eta 60 aldiz odola emandako

zortzi herrikide izan dira aurtengo omenduak, emakumeak guztiak.

Ondoko argazkian dituzue haietako batzuk, elkarteko kideekin batera. Mende erdiko ospakizuna izanik, gainera, 50 urteotako ibilbidearen zati handi batean elkarteko ordezkari izandako Patxi Arruti ere omendu zuten.

Segidan duzue, gorazarre eginiko herriko zortzi emaileen zerrenda:

**Hurrengo odol-ematea, martxoaren 3an**

Gogoan izan, Usurbilen bi hilean behin lehen asteleheneretan (urtarrilean eta uztailean bigarren asteleheneretan) izaten dela odola emateko aukera Usurbilen. Urtarrilekoa igarota, martxoan izango da hurrengo hitzordua, hilaren 3an, arratsaldeko 16:30-20:10 artean, Udarregi ikastolako erdiko aretoan.

# Kantu-jira berezia egingo dute Santa Ageda bezperan

Urte amaierako ospakizunen ondotik, ohiko jardunera itzulia da Usurbilgo Euskal Kantu Taldea, asteleheneroko entsegu saioekin.

Entseguai ekiteaz gain, plazan kantari ere hasiak dira berriz. Larunbatean kalez kale ibili ziren kantuan hileroko ohiturari segida emanez. Palestinar herriari babesa eskainiz aritu ziren abesten, euria tarteko, aterpean egin behar izan zuten kantu-jiran.

Adi, hurrengo asteotarako deialdi gehiago iragarri ditu eta Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak. Asteleheneroko ikastaroarekin batera, otsailaren

4rako Santa Ageda bezperako kantu-jira berezia antolatuko dute. Kalezarko zaintzadun etxebizitzaren auzune berritiko abiatuko dute bira, iaz, estreinakoz egin bezala:

**Kantu Taldearen deialdiak**

**Astelehenero**

• 18:00-19:00 Ikastaroko saioak Agerialdeko musika gelan.



Larunbateko kantu-jiran Palestinako herria izan zuten gogoan.

**Otsailak 4, asteartea**

• 18:00 Santa Ageda bezperako kantu-jira Egurtzegitik abiatuta. Baserritar jantziekin eta makila eskuartean parte hartzeko deia.

**Otsailak 22, larunbata**

• 12:00 Kantu-jira Mikel Laboa plazatik.

Antolatzailea: Usurbilgo Euskal Kantu Taldea.

**SANTA AGEDA BEZPERAKO EGURTZEGITIK ABIATUKO DA**



Iñauteri Jaia martxoaren 1ean ospatuko da aurten.

## 'Superheroiak' izan da Inauteri Festarako babes gehien jaso duen proposamena

Azken asteotan, martxoaren 1ean ospatuko dugun jaialdirako proposamenak egiteko gonbita egin du NOAUA! Kultur Elkarteak. Jasotako ekarpenen artean bi izan dira hautaketa prozesuko azken txanpara ailegatu direnak; 'Usurbil 3025' eta 'Superheroiak'. Azken hau gailendu da.

Bazterrean geratu den gaiak, 'Usurbil 3025', mila urte barruko Usurbil eta usurbildarrei, mila urte barruko herri eta mundu ikuspegiari erreparatu nahi zion. Azken hitza ordea, zuek izan duzue. Horretarako, inkesta bidez proposatu zuen kultur elkarte honek Inauteri Festarako bi gaion arteko hautaketa egitea.

Inkesta hori noaua.eus atarian zintzilikatu genuen eta lehia estua izan zen. "Zertaz mozorrotu nahi zenuke Inauteri Festan?" horixe zen egin genizuen galdera. Superheroiak edo Usurbil 3025, gaion artean bat aukeratu behar zenuten. Superheroiaren gaiak une oro boto gehiago jaso izan ditu, baina aldea txikiagotu du egunek aurrera egin ahala, etorkizunera begira jarri nahi gintuen bigarren gaiak. Hale-

re, aipatu moduan, superheroiaren aldeko hautua egin duzue gehienok, %58,8ak hain zuzen (aste hasierako datuen arabera). Gainerako %41,2ak, Usurbil 3025 nahiago zenuten mozorrotzeko aitzakia gisa. Milesker, hautaketa prozesu honetan zehar hitza hartu duzuen guztioi!

**Marrakzi bizidunetatik haratago**  
Zuek izatea nahi genuen azken hitza. Zuek agerturiko borondatea betetzea dagokigu orain. 2025eko martxoaren lehen eguneko mozorro festa eguneko superheroiak janztea proposatzen dizue kultur elkarte honek, zuen iritzia kontuan izanda.

Denok oroimenean iltzatuak izango ditugu marrakzi bizidun bat baino gehiagoko superheroiak. Baina proposamen ho-

nek ikuspegia zabaldu eta irudimena lantzeko gonbita ere izan nahi du. Zuen bizi-tzetako superheroiaren topaleku izateko gonbita duzue honakoa. Hilabete baino ez da geratzen. Ekin prestaketei!

### Jaialdi girotua

Festa giroako osagai nagusiak ez dira faltako aurten ere; kalejiran, dantzan eta musikaz blai jai giroan murgiltzeko aukera izango da martxoaren lehenean.

**NOAUA.EUS WEB ORRIKO INKESTAN PARTE HARTU DUTENEK IZAN DUTE AZKEN HITZA**

### Jabetza Eskolako ikastaroak

Jabetza Eskolako ikastaroetan urtarri-laren 27tik otsailaren 7ra eman ahalko da izena.

#### 'Biodantza ikastaroa'

- Otsailak 11-maiatzak 27, asteartean.
- 17:30-19:00.
- Formatzailea: Eider Zuriarrain. Euskaraz.
- Zehaztasunak: "Biodantza musika, mugimendua eta emozioa uztartzen dituen jakintza bat da. Modu honetan, bakoitzak bere pentsamendu, sentimendu eta ekintzen kontzientzia hartzen du. Adin guztietako emakumei zuzendua dago eta ez da aurretik dantza egiteko esperientziarik behar".

#### 'Emakumeen osasuna heldutasunean, menopausia eta bizi-baldintzak'

- Otsailak 14-martxoak 14, ostiraletan.
- Martxoak 20-maiatzak 22, ostegunetan.
- 17:00-19:00.
- Formatzailea: Pepa Bojo. Erdaraz.

#### Batukada feminista

- Otsailak 17-maiatzak 26, bi astelehenetan behin.
- 18:00-20:00.
- Udarregi ikastolan.
- Hizkuntza: euskaraz.

#### Hiru ikastaro hauetan hitzordua eskatzeko:

- 943 377 112
- Eposta: emakumeonetxea@usurbil.eus

OTSAILAK 1 Larunbata

## IPARRERA BEGIRA ORBELDI dantza taldearen emanaldia

Ordua: 19:00

Non: Sutegiko auditorioan

Sarrerak: doan, gonbidapena eskuratu beharko da



OTSAILAK 2 Igandea

## ITZAL(IKO) BAGINA Ikuskizuna

Ordua: 18:00

Non: Sutegiko auditorioan

Sarrerak: 10€ (Bazkideek 8€)



OTSAILAK 7 Ostirala

## ANIMO Film estrenaldia

Ordua: 19:00

Non: Sutegiko auditorioan

Sarrerak: doan, gonbidapena eskuratu beharko da



OTSAILAK 8 Larunbata

## ITOIZ UDAKO SESIOAK Film emanaldia

Ordua: 19:00

Non: Sutegiko auditorioan

Sarrerak: 6€ (Bazkideek 4€)



OTSAILAK 9 Igandea

## MIÑAN Antzerkia

Ordua: 18:00

Non: Sutegiko auditorioan

Sarrerak: 10€ (Bazkideek 8€)



**Sarrerak eta gonpidapenak:** [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) webgunean edo  
Noauako egoitzan egongo dira eskuragarri

**Antolatzailea:**



**Laguntzailea:**



Usurbilgo Udala

# NOAUA! KULTURALDIA 2025

# Emozio handiko azken agurra Odolaren Mintzoari

Emozio handiko eguna izan zen larunbatekoa, agurtzera zihoazen Odolaren Mintzoako kideentzat, ahaztezina.

"Ameslarion gaua, garaitezin sentitu ginen", adierazi dute sare sozialen bidez, Jokin Irastorzak, Beñat Txuekak, Luken Arkarazok eta Joanes Txuekak. Hemezortzi urteetan eraiki eta sendotzen joandako komunitatea bidelagun izan zuen laukoteak egun osoz, azkenetan azkena izango zen agurreko kontzertua eskaini aurretik. Izan ere, une hunkigarria bizi izan zuten eguerdian ikastolako jangelan eginiko bazkariaren aurretik eginiko ekitaldian. Taldearen ia bi hamar-kadako ibilbidearen irudi proiektzioa eskainiko zuten.

Arkarazok egin zuen narrazio lana eta azken txanpa honetara nola heldu diren nabarmendu zuen. "Irribarre bat dugu ahoan, harro gaudelako egindako bidez. Usurbilgo gaztetxo batzuen ametsak bete ditu eta hori gauza handia da". Horren haritik, "txikitasunaren handitasunagatik" topa eginez eta aurrean zituztenei eskerrak emanez amaitu zuten bertan bildutakoek ekitaldia.

## Kontzertu gau bizia

Kontzertu gauaren atariko hitzordua izan zen hori, Aitzaga elkarteak sukaldatu eta



Frontoia bete zuen Odolaren Mintzoa taldearen azken kontzertuak.

prestatu rikoz bazkalordua girotu zuena. Izan ere, auzolanean bideratu zuten eguna eta baita herri sorkuntza ohol-

tzaratu zuen ia hamabi orduko musika jaialdia ere. Belau-naldi ezberdinetako Usurbilgo musika taldeak batu zituen frontoiko bi oholtzetan dinamikoa, bizia eta jendetsua izandako kontzertu gauak. Viafara, Hysteria, Zaparra, Mihise, Txiskeroak, Ameba edota Rukula izan zituen bidelagun Odolaren Mintzoak azken aldiz zuzenean ikusi genituen emanaldi gauak.

## AGURREKO MEZUA: "IRRIBARRE BAT DUGU AHOAN, HARRO GAUDELAKO EGINDAKO BIDEAZ"



Odolaren Mintzoak senide, lagun eta zaletuen aurrean abestu zuen azken aldiz.



Urteotako kantak azken aldiz abestu zituen taldeak azken kontzertuan.



Odolaren Mintzoaren proiektzioa begira, senide, lagun eta zaletuak.



Odolaren Mintzoa taldeko kideak, bazkalurreko ekitaldian.



Topa eginez, Odolaren Mintzoari merezitako gorazarrea egin zion taldearen bueltan urteotan eraikitzen joandako komunitateak.



Rukulakoek dantza batean jarri zituzten frontoian bildutakoak.



Mihise taldeak eskainitako kontzertuko uneetako bat.



Ameba taldea izan zen kontzertua eskaini zuen taldeetako bat.



Agurreko jaialdiko bazkaria Aitzaga elkarteak prestatu eta zerbitzatu zuen.



# GURE ESKOLA KOMUNITATEAREN PARTE IZAN NAHI?



ATEAK PAREZ PARE IREKITA DITUZU  
ESKOLA TXIKIAN

## ATE IREKIAK

Ikasleak lanean ari direla  
eskola ezagutzeko  
aukera eskaintzen  
dizuegu!

ADIN ANIZTASUNA EGUNEROKOTASUNEAN



LANDA EREMUAN KOKATUTA



KOMUNITATEAREKIN ELKARLANEAN



INTERESETATIK ABIATUTAKO  
PROIEKTUAK SORTUZ



EUSKAL KULTURA SUSTATUZ, HERRIAN PARTE HARTUZ



**Aurre-matrikula epea:  
Otsailaren 3tik 14ra**

Jar zaitezte gurekin  
harremanetan eta zuen  
ordutegietara moldatuko  
gara!

**943372044**

**012261aa@hezkuntza.net**



Udal iturriek aditzera eman dutenez, "2025a amaitu baino lehen gauzatu behar dira obrak".

## Esleipen bikoitza, Etxealdia irisgarriagoa izateko

Etxealdiako igogailua eta San Esteban kalea urbanizatzen amaitzeko lanak esleitu dituela berri eman du Udalak.

"12 metroko desnibela gaintuko du. Beheko partean inguruarekin bat egingo duen eskailera eta begiratokiak izango ditu, gainera: lur jabeekin akordioa lortu du udalak, horretarako. Proiektuan sartu da, baita ere, igogailuaren oina eta San Esteban 12 ataria modu irisgarrian lotuko duen aldapa bat eraikitzea", Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez. Udazkenean bideraturiko esleipen prozesuaren baitan, "lizitatzailerak bakarrik aurkeztu zen, Construcciones Urdinberri SL, eta hari esleitu zaizkio lanak, 773.722,61 euroan. Otsail hasieran sinatu-

ko da kontratua, eta aurreikuspenen arabera, zazpi hilabete beharko dituzte obrak egiteko". Exekuzio proiektua Rehabite enpresak idatzia du.

Obra hauek egiteko Eusko Jaurlaritzaren 370.000 euroko dirulaguntza jaso du Udalak. "Inbertsio hori aurrerago egiteko asmoa zuen udalak, baina dirulaguntza aitortu zitzaionez, aurreratzea erabaki zen. Dirulaguntzak, gainera, epeei lotutako zenbait baldintza ezartzen ditu: 2024ko azarorako martxan behar zuen obren esleipenak, eta 2025a amaitu baino lehen gauzatu behar dira obrak".

### Bigarren fasea

Herri erdigunea, Atallu, tren geltoki berria eta Santuenea lotzen dituen Etxealdiako San Esteban kaleari dagokionean, Udaletik aditzera eman dutenez, bestalde, pasabide hau egokitzen amaitzeko lanak ere esleitu dituzte, "210.164,58 euroan: Sasoi Eraikuntzak SL enpresak egingo ditu, alegia, kalearen goiko zatia egokitu zuten berberak".

Lan hauek "ETS egiten ari den tren geltoki berriko lanek baldintzatuta daude. Zubi berria jarriko dute, lehengo baino altuera handiagoan: hori dela eta, ETS-k bere zatia bukatu arte itxarotea erabaki zen, baliabideak modu arduratsuan erabiltzeari lehentasuna emanda. ETS-k lanak amaitu zain dago udala, baina udaberri inguruan lanean hasteko aukera izango duela aurreikusten da".

Goiko zatian bezala, "behekoan ere lur azpiko azpiegiturak berritzeko aprobetxatu-

ko dituzte obrak. Lanak amaitutakoan, oinezkoek lehentasuna izango dute, irisgarritasuna bermatuta izango da, eta itxura bateratua izango du San Esteban kaleak, goitik behera. Aurreikuspenen arabera, bi hilabete beharko dira lanak gauzatzeko", aurreikusi du Udalak.

Lanok tarteko espazio berri bat ere sortuko dela ohartarazi dute. "ETS-ren lanen ondorioz, udalak ekipamendu berri bat izango du kalearen beheko aldean, zubiaren oinarriaren altuera igota, espazio berri bat sortu baita azpian, biltegi gisa erabiltzeko. ETS zubitik auzoaren beheko eremura joateko eskailerak ere berritzen ari da".

### Harrera bizilagun berriei

Otsailaren 1a harrera eguna izango dugu Usurbilen. Izan ere, iaz udalerrri honetara bizitzera etorritakoei ongi etorria emateko ekitaldia antolatu dute Usurbilgo Udalak eta Aniztasun Kontseiluak. Ekitaldia larunbat goizeko 11:30etan egingo da udal txeko udalbatza aretoan. "Hainbat helburu ditu harrera bilerak, besteak beste, elkar ezagutzeko, harreman berriak sortzeko aukerak zabaltzeko eta herriko elkarbizitza errazteko. Herriko baliabideen berri eman ostean, herriko ondarea eta euskal kultura ezagutarazteko 650 Usurbil Bizi herri egitasmoaren bidez eskaintzen diren bisita gidatu berezia prestatu dute haien tzentzat, Usurbil hobeto ezagutzeko aukera emango dielakoan", jakinarazi dute Udaletik.


  
**ARTZABAL**
  
 BASERRÍA · JATEITXEA
   
[www.artzabaljateitxea.com](http://www.artzabaljateitxea.com)

· EGUNEKO MENUA
   
 · KARTA
   
 · RAZIOAK
   
 · HANBURGESAK
   
 · BOKATAK
   



943 36 91 39


  
 PLATER KONBINATUAK
   
 · BOKATAK · PINTXOAK
   
**TABERNA**

Kontzeju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66



2017an hasi zen 'Animo' filmaren lehen irudiak grabatzen. 2024an amaitu du. Telmo Irureta da protagonista nagusia.

# "Telmo Irureta den aktorea erakutsi nahi nuen film honen bidez"

ALEX TELLO AKTOREA, GIDOILARIA, ZINEMA ZUZENDARIA

Otsailaren 7an, eta NOAUA! Kulturaldiaren baitan, bere lehen film luzea aurkeztuko du Sutegin: 'Animo'. Tellok berak idatzi, zuzendu eta finantzatu du pelikula. "Ekoizle izateak bestelako ardura batzuk ere badakartza berarekin", eta grabaketa prozesua oso exijentea izan dela adierazi digu.

**Maitasuna, bizitza, komunikazioa-inkomunikazioa... Kezka existentzialistak dira nagusi. Homosexualitatearen prisma galdu gabe.**

Homosexualitatearena zirkunstantziala da. Gidoia, filma egin ahala eraikitzen joan zen. Hori bai, hasiera-hasieratik argi neukan Telmo Irureta izango zela protagonista, eta argi neukan Telmoren inguruan moldatu nahi nuela filma. Pertsonaia homosexual batean egoki ikusten nuen Telmo, baina historia heterosexualagoa balitz ere, berdin-berdin fun-

tzionatuko luke. Kezka unibertsalak direlako.

**Familia aipatu duzu. Aitorrek, filmeko protagonista nagusiak, aita du faltan. Galerak nola kudeatzen ditugun, hori ere**

**"ARGI NUEN TELMO IRURETA AKTOREAREN INGURUAN MOLDATU NAHI NUELA FILMA"**

**pil-pilean dago filmaren mui-  
nean.**

Gaur egun akaso ez, familia eredu ezberdinak daudelako gaur egun. Baina gure belau-naldian, familia estandarra zen nagusi. Pilare horietako

**"FILMAREKIN HASI GINENEAN, TELMO ANTZERKIAN HASI BERRIA ZEN. ETA ORAIN GOYA SARI BAT DAUKA"**

bat falta bada, dena kolokan geratzen da eta hori pairatzen du protagonistak.

**Erantzunen bila bizi naiz eta ez ditut aurkitzen / bizitzaren borroka esaidazu nola izan behar duen. Sutagarren 'Bizitzaren borroka' kantaren letra zati bat da hori. Filmaren sinopsia gisa ere funtzionatu dezake, ezta?**

Film honetan zortzi urtez egon naiz murgilduta. Eta urte haue-tan kanta asko entzun ditut, tartean, hauxe. Denbora tarte honetan gainera, Su Ta Garren inguruko komikia plazaratu genuen. Filmaren bueltan nenn-bilela, abesti hau entzun nuen, berehala konturatu nintzen oso ondo egokitzen zela filmaren amaieran. Gauza bera esan daiteke pelikularen hasierako kantari buruz ere.

**'Boyhood' filma gogorarazi dit zure lanak. Film hark 12 urteko bilakaera islatzen zuen. Kasu honetan tartea laburragoa da, baina zurean ere, agerikoa da Telmoren bilakaera fisikoa.**

Agerikoa da bai, agerikoa da Telmoren bilakaera film honetan. 2017an hasi ginen filma grabatzen. Telmo antzerkian bazebilen baina ez zuen gaur egun duen oihartzuna. Pentsa nola aldatu diren gauzak. Orain Goya sari bat dauka eta Tanttaka antzerki konpainiarekin ari da lanean.

**Berak ere film honen aldeko apustua egingo zuen, ezta? 2017tik hona eutsi baitio bere konpromisoari.**

Bera halakoa da. Beste kontu batzuetan bere zalantzak eta bere beldurrak izango ditu, baina elkarrenganako konfiantza handia dugunez, oso ondo eraman du prozesu osoa.

Telmo Irureta da protagonista nagusia. Telmok garun paralisia du, baina filmean ez da hori islatzen. Bere desgaitasuna ez da ageri. Ez zenion bere desgaitasunari zirrikiturik utzi nahi, eta horrek beste aktoreen pare jartzen du, ezta?





"Telmok garun paralisirik ez duen pertsonaia baten antzezpena egiteko ahalmena ere baduela islatu nahi nuen".

Nire helburuetako bat hori zen. Ez da gurpildun aulkirik ikusten eta bere gorputz osoa bitan bakarrik agertzen da. Dena dago bere neurrira egina. Beste aktoreen tratamendua ere, Telmoren neurrira diseinatu dago. Plano ertainak... Telmo den aktorea erakutsi nahi nuen. Garun paralisirik ez duen pertsonaia baten antzezpena egiteko ahalmena ere baduela islatu nahi nuen. Helburua hori ez bazen ere, honek guztiak adierazten du filmak ikuspegi inklusibo bat duela bere horretan.

**Aitor da protagonista nagusia. Amets da nabarmentzen den beste protagonista. Paraleloan doazen bi istorio dira, amaieran gurutzatuko direnak. Biek ezinegon bat dute baina modu ezberdinean bizi dute. Atsekabe berbera partekatzen dute. Atsekabe hori da kontakizunaren motorra, ezta?**  
Hori da. Aitor eta Amets ezinegon batekin bizi dira. Aitorrek barrura begira bizi du kezka hori, Ametsek berriz kanpora begira. Bi ezkortasun mota horiek, bateko minus-a eta besteko minus-a, biak elkartu eta plus bilakatu nahi nituen. Bi ezkortasun horiek, Aitor eta

Amets, osagarri izan daitezkeela azaldu nahi nuen.

**Filmak aurrera egin ahala, korralagoa bilakatuko da metrajea. Puntako aktoreak agertuz joango dira: Amaia Ruiz de Galarreta, Jose Ramon Soroz, Elena Irureta, Klara Badiola, Aitziber Garmendia...**

Nire kasuan, filma egin aurretik ezagunak nituen. Telmoren lagunminak dira horiek denak eta horrek asko lagundu du filmaren casting-ean.

Era berean, gogoan zuen jendeari aukera eman nahi nion eta hor dago Natali.

**Natali kantari bezala agertuko da filmaren hasieran baina filmak aurrera egin ahala, aktore gisa ere ikusiko dugu. Ez du paper eskasa. Sekuentzia garrantzitsuetan ageri da.**

**"AKTORE EZAGUNAK DAUDE BAINA GOGOAN ZUEN JENDEARI ERE AUKERA BAT EMAN NAHI NION"**

Natalik beti egin nahi izan du bide bat ikusentzunezkoen arloan eta ondo txertatzen zen istorioan.

**Lau labor ezberdin daude eta beste trama batzuen bitartez harilkatu dituzu denak. Hasieratik argi zenuen film luzearen ideia ala laborrak egin ahala joan zinen film luzea irudikatzen?**

Nik labor bat egin nahi nuen. Labor txukun bat. Hirugarren film laborrarekin hasi nintzen film luzean pentsatzen.

Ezjakina izan naiz eta filma egin ahala ikasten joan naiz. Film bat artistikoki nola egin daitekeen probatzen.

**Gidoia ere, filma osatu ahal joan zara berridazten edo aberasten, ezta?**

Oso ariketa polita izan da. Gidoia bera bada filmeko bes-

**"AUTOPRODUKZIOA OSO GARESTI ATERATZEN DA. HURRENGOA EZ DUT USTE HALAXE EGINGO DUDANIK"**

te protagonista bat. Eta hori ez da oso ohikoa. Hemen, normalean gidoi bat idazten da eta gidoia finkatu eta gero hasten da pelikularen errodaia. Guk beste modu batean egin dugu.

**Aske aritzeko aukera izan duzu, hortaz. Zu zeu ekoizle izatearen abantaila. Baina aldi berean, askatasun hori ez da batere errentagarria, ezta? Finantziario zure kontura joan da.**

Autoprodukzioa oso garesti ateratzen da. Askatasuna garestia da. Ekoizle izateak ere beste ardurak batzuk dakartza berarekin eta grabazio prozesu osoa oso exijentea izan da.

**Antolaketa, aktoreen eta kamearen koordinazioa egin, lokalizazioak lotu...**

Kaffan grabatzen ari ginen batean, gogoan dut dena prest genuela. Iluminazioa eta soina prest, eta bestaldeko etxean obretan hasi ziren. Eta ezin genuen grabaketa eguna atzeratu. Baina azkenean moldatu ginen.

Nire energiari eta nire indarrei neurria bilatzen aritu naiz urteotan. Dena den, hurrengo proiektu batean ez dut uste horrela egingo dudunik.

**Otsailaren 7an Sutegin ikus ahal izango dugu. Ondoren, non ikusi ahal izango dugu 'Animo'? Orain bogan diren plataforma horietako batean akaso?**

EITBekin hitz egin nuen, filma mugitzeko babesle bat behar nuelako. EITBn Primeran plataformarako eros zezaketela aipatu zidaten, baina ez da nire helburua plataforma batean programatzea.

Denborarekin ikusiko da. Banatzaile bat lortu dut eta banatzailearen bitartez herriz herri proiektatu nahiko nuke. Interesa azaldu dute dagoneko Zumaiian, Aian, Iruñean... Orain hedabideetan hasi dira filmaren berri ematen, eta garai hau izango da gakoia.



"Dantza ezberdinak plazaratuko ditugu, bolantetatik kontradantzeta, jauzietatik makil jokoetara".

## Larunbat honetan, Orbeldiren ikuskizuna

Orbeldi Dantza Taldekoen esanetan, "ohituraz euskaldunok badugu gure inguruan zer gertatzen den jakiteko

berri, baina bada Euskal Herrian inguru bat ahantzia geratzen dena gehienetan, Ipar Euskal Herria. Jakina

denez Lapurdi, Baxenafarroan eta Zuberoan badute dantzarako ohitura, baita hauekin jolasteko gaitasuna ere". Horregatik, ikuskizun honetan, Orbedi Dantza taldeak hiru lurralde horietan dantzatzen dituzten pieza ezberdinak plazaratuko dituzte, "bolantetatik kontradantzeta, jauzietatik makil jokoe-

tara. Hain gertu bezain urrun sentitzen dugu Iparraldea batzuetan, eta emanaldi honetan bertan ikusi dezakegunaren zertzelada bat aurkituko dugu", iragarri dutenez.

**Otsailak 1 larunbata, 19:00 Sutejin**

NOAUA! Kultur Elkartearen Kulturaldia abiaraziko du Orbedi dantza taldeak Ipar Euskal Herrira begira jarriko gaituen ikuskizun berriarekin. Sarrerak: gonbidapenak doan usurbilkultura.eus plataforman edo NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan.

## IPARRALDEKO DANTZEKIN IKUSKIZUN APARTA PRESTATU DUTE ORBELDI TALDEKO DANTZARIEK



Argazkian, 'Itzal(iko) bagina' ikuskizuneko protagonistak.

## Igande honetan, bertso-antzerkia

Bizkaiko Bertso Munduko Emakumeen Topaketetako bazkarian du jatorria sorkuntzalan honek. Bertan, "ondoan tokatu ziren Araitz Katarain,

Izaro Bilbao eta Janire Arrizabalaga bertsolariak", ikuskizuneko hiru protagonistak, bertsoa.eus atarian irakurri ahal izan dugunez. Otordu

hartan, "euren ezin egonei buruz hitz egiten hasi eta zerbait sortzeko gogo piztu zitzairen. Lokatz Loreak kolektiboaren sorrera etorri zen hortik, ondoren 'Friki saioak' eta iaz estreinaturiko 'Itzal(iko) bagina', bertsoa oinarri duen ikuskizuna".

Emanaldian zehar, "itzalek leku garrantzitsua hartuko

dute. Izan ere, teladun hiru markoren atzean proiektatuko dira zenbait pasarte. Arropen eta argien koloreekin jolastuko da".

**Otsailak 2 igandea, 18:00 Sutejin**

Sorkuntza eta antzezpena: Janire Arrizabalaga, Izaro Bilbao eta Araitz Katarain. Zuzendaritza: Iraitz Lizarraga. Sarrerak: 10 eurotan usurbilkultura.eus plataforman edo NOAUA!ren egoitzan. NOAUA!ko bazkideek 8 eurotan eskura dezakete, baina soilik NOAUA!ko egoitzan.

## GENEROA, OSASUN MENTALA, MERITOKRAZIA... PIL-PILEAN DIREN GAIK HARTUKO DITUZTE HIZPIDE



Itoizen inguruko filmak badu dokumentaletik eta badu fikziotik.

## Otsailaren 8an, 'Itoiz udak sesioak' filma

Itoiz taldearen inguruko dokumentala estreinatu berrian iritsiko da Sutegira. Hiru zinemagileren artean osatu dute

Itoiz talde mitikoaren inguruko dokumentala. Larraitz Zua-zo, Zuri Goikoetxea eta Ainhoa Andraka zuzendarien lan ho-

netan, taldearen ibilbidearen berri emango zaigu. Taldea desegiteko arrazoiak ere argituko dira.

Pelikula egiteko hainbat osagai baliatu dituzte. Itoizeko kideei egindako elkarrizketa sakonak daude, batetik. Artxiboko materiala batzeko ahalegin berezia egin dute bestetik. Eta azkenik, hainbat

pasarte fikzio bidez irudikatu dituzte.

### Otsailak 8 larunbata, 19:00 Sutegin

- Sinopsia: Juan Carlos Pérez gogoeta sakon batean murgilduko da argitaratu gabeko zinta bilduma baten aurkuntzaren ondorioz. Itoiz musika taldearen buru izandakoak bidaia katartiko bat hasiko du, iraganarekin adiskidetzeko balioko diona.

- Sarrera: 6 euro, usurbilkultura.eus plataforman edota NOAUA! ren egoitzan. NOAUA! K.E.-ren bazkideek 4 eurotan erosi ahalko dituzte, baina soilik kultur elkarteko egoitzan.

## ITOIZEN ARGITARATU GABEKO ZINTA BAT DA FILMAREN ABIAPUNTUA



Ametz Arzallusek eta Ibrahim Baldek argitaratu zuten liburuan oinarritzen da 'Miñan' antzezlan.

## Otsailaren 9an, 'Miñan' antzezlan

Ibrahima kamioi batean zebilen aprendiz Ginean, egun batean amak deitu zuen arte: anaia txikia falta zen etxean. Eta haren bila abiatu zen.

Basamortua gurutzatu; pasatzaile, polizia, bahitzaileekin topo egin; egarria, gosea, mina ezagutu. Afrikatik Europarako bidea. Mediterranea

zeharkatzen dutenak deshumanizatzea ezinbestekoa da haien heriotzen, kanporatzeen, ilegalizatutako bizitzaren gaineko ezaxola zabaltzeko. Baina bizitza horietako bakoitza bakarra da eta, beraz, unibertsala. Eta kontatzeak hori azpimarratzen du. Ibrahim Balderen bizitzaren kronika da antzezlan hau, hark

ahoz kontatua, Amets Arzallusek idatziz jasoa, eta Arterdramak antzerkera egokitua.

Ametz Arzallusek maiz esan izan duen moduan, "Ibrahimaren istorioak primeran laburbiltzen du migratzaileen odisea".

### Otsailak 9 igandea, 18:00 Sutegin. Sarrerak, agortuta

Sarrerak agortuta daude. Salmenta zabaldu eta berehala hasi ziren sarrerak saltzen. Aurreko ostegunean saldu ziren azken txartelak. Egunean bertan ez da erosteko modurik izango.

## "IBRAHIMAREN ISTORIOAK PRIMERAN LABURBILTZEN DU MIGRATZAILEEN ODISEA"



Apirilaren 17an, Ostegun Santuan, 63 kilometroko luzera duen ibilbidea osatuko dute.

# Arantzazura oinez joateko deia aurten ere

Usurbildik Arantzazura tipi-tapa joateko deia egin dute aurten ere. Urte luzeetako ohitura berrituko dute beste behin; Usurbildik Arantzazurainoko bidea oinez osatzea, apirilaren 17an.

63 kilometro luze dituen bidea osatzeko (2.700 metroko desnibela) prestatzen hasteko

deia egin dute antolakuntzatik. Aipatu moduan, apirilaren 17rako finkatu dute irteera.

Gogoan izan, goizaldeko 4:45 aldera biltzen dira frontoi atzean, 5:00etarako prestatu eta ibilaldiari ekiteko. Tarte horretan, egunaren amaieran Arantzazutik itzultzeko autobusean aldatzeko arropa uzten da. Ibilbidean zehar, zenbait geldialdi egiten dituzte; hala nola, Mandubian hamaiketako, Zumarraga parean arropa aldatzeko aukera, Legazpian bazkaltzeko geratzen dira eta Arantzazura helduta askari baten bueltan borobiltzen dute eguna. Antolakuntzatik aurtengoan ere helarazi duten

ohar garrantzitsua; parte hartzaileak federatuak izateak duen garrantzia, edozer gertatuta ere deitzaileak ez baitira horren erantzule egingo. Informazio gehiago jaso edota izena eman nahi duenak deitu dezala 662 039 829 telefono zenbakira.

## Lau hamarkadatik gora

Hamarkada luzeetako usadio zaharrari eutsi dio belaunaldi artekotasuna ere sustatu duen hitzordu honek. Duela lau hamarkada inguru "3 lagun hasi ziren ibilbide hau egiten" antolatzaileen esanetan. Gero, pixkanaka jende gehiago batu zen. Usurbildarrak, eta baita inguruko herrietako mendizale gehiago ere; Donostia, Amasa, Zizurkil edota Tolosa aldekoak. "Berrogeitik gora lagun joatera heldu ginen", diote. Bidean, beraz, jende berria ezagutzeko aukera izan dute.

**"INFORMAZIO GEHIAGO JASO EDOTA IZENA EMAN NAHI DUENAK DEITU DEZALA 662 039 829 TELEFONO ZENBAKIRA"**

## Orientazio probarako izen-ematea

Orientazio Ligaren bederatzigarren edizioa Usurbilen hasiko da hilaren 9an. "Orientazio proba bat, mapa batean adierazitako ibilbide bat, naturan jarritako balizak bilatuz egitean datza", Gipuzkoako Orientazio Taldearen esanetan. Hala, "parte hartzaile bakoitzak, mapa bat eta kontrol txartel bat izango du, bertan baliza bakoitza zulatu beharko delarik".

- 10:00 Lehen irteerak.
- 12:00 Azken irteerak.
- 14:00 Helmuga itxiera.

### Ibilbide motak:

- Gorria: teknikoa eta sasoi onean egotea eskatuko du.
- Laranja: ez hain teknikoa, baina orientatzeko ezagutzak eduki beharko dira.
- Horia: hasiberrientzat eta familientzat.

### Otsailak 9, igandea

• 09:30 Harrera gunearen irekiera Askatasuna plazan.

### Izen-ematea:

Banaka nahiz taldekakoak, otsailaren 6ko gaueko 22:00ak



Otsailaren 9an egingo da proba baina izen-ematea otsailaren 6an itxiko da.

arte egin ahal izango da, eu.deporticket.com web orrialdean.

### Informazio gehiago:

info@gotorientazioa.org  
gotorientazioa.org

## MERKATU TXIKIA

## ETXEBIZITZAK

## ALOKAIRUAN

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 3 logelako bizilekua behar dugu alokairuan hartzeko. 688 653 441.

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m<sup>2</sup> lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

## MOTORRA

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

## SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. Harremanetarako: 722 248 869.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Pertsona bat bilatzen dut. DBHko ikasle bati astean hirutan klase par-

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahal, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

tikularrak emateko. Ikasturte osorako konpromisoa: 647 742 588.

Pertsona bat bilatzen dut, DBHko ikasle bati egunero klase partikularrak emateko. 647742588

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Adineko pertsonak zaintzeko eskaintzen dut neure burua, emakume arduratsua naiz, esperientzia dut. 747446091 Michele

Paperak egunean ditudan neska bat naiz eta interna moduan edo orduka zaintza lanak edo garbiketara lanak egiteko lan bila nabil. 607455413.

Etxeko lanak / zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat naiz. Goizez (9:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-21:00) aritzeko prest. Telefono zenbakia: 609647728

Pertsona helduak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. Harremanetarako: 628 459 625

## BESTELAKOAK

Frantses irakasle baten bila ari gara, DBH4ko ikasle bati klaseak emateko. 615 758 476.

M365 Xiaomi patinete elektrikoa saltzen dut. 160 euro. Kaskoa eta ordezeko gorpila opari. 656734413 (whatsapp bidez idatzi).

## Futbol partidak

## Otsailak 1, larunbata

- 10:00 Infantil mutilak: Usurbil FT C-Beti Ona CD C
- 11:30 Infantil mutilak: Usurbil FT B-Orioko FT B
- 16:00 Jubenilak: Usurbil FT B-Dunboa Eguzki CD

## Otsailak 2, igandea

- 10:00 Futbol Eskola.
- 12:00 Infantil neskak: Usurbil FT-Intxaurdi KE C
- 15:30 Kadete neskak: Usurbil FT-Añorga KKE B
- 17:30 Erregionalak: Usurbil FT B-Mundarro

## Otsailak 1, larunbata (Kanpoan)

- 10:15 Infantil mutilak: Anaitasuna CD-Usurbil FT
  - 12:00 Infantil Txiki, Trintxerpen: Lengokoak SD-Usurbil FT.
  - 16:00 Preferente neskak: Segura Aizkorri FT-Usurbil FT
  - 17:00 Preferente mutilak: Orioko FT-Usurbil FT
  - 17:00 Ohorezko jubenilak: Oiartzun KE-Usurbil FT
  - 18:00 Kadete mutilak: Anaitasuna CD B-Usurbil FT
- Otsailak 2, igandea (Kanpoan)**
- 10:30 Infantil neskak: Arrupe Chaminade-Usurbil FT

## Pilota Usurbilen

## Urtarrilak 31 ostirala, 17.45

Infantilak binaka 1. Mailan:  
Pagazpe (Alejo-Alejo) - 7 Iturri  
Kadeteak binaka 2. Mailan:  
- Pagazpe (Indakoetxea-Jauregi)  
- Bergara 2  
Infantilak binaka 2. Mailan:  
Pagazpe 2 - EPLE 2

## Otsailak 1 larunbata, 11:30:

Jubenilak binaka 1. Mailan (Udaberri):  
Pagazpe (Alejo-Pagola) - Ilunpe

## Eskubaloia Oiardon

## Otsailak 1, larunbata

- 16:00 Kadete neskak: -Cortes Usurbil K.E.
- Urnieta Iñaki Mecanizados
- 17:45 Jubenil neskak: -Usurbil K.E.
- Irudek Bidasoa Irun
- 19:30 Senior mutilak: Saizar Usurbil K.E. -Tolosa B

## Otsailak 2, igandea

10:00 Infantil neskak: Usurbil K.E.-Boga Boga Orio Eragin

## TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkarte Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potoxenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

## HILDAKOAK



**Magdalena Maritxalar Argindegi**  
Urtarrilaren 24an hil zen, 90 urterekin.



**Ana Mari Manterola Elicegui**  
Urtarrilaren 23an hil zen, 73 urterekin.

## Boleibola Oiardon

## Otsailak 1 larunbata, 12:00:

Kadete neskak:  
-Usurbil-Aldapeta



**Xeberi Iribar Arruti**  
Urtarrilaren 24an hil zen, 94 urterekin.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## OSTIRALA 31

## USURBIL Xake tailerra udal liburutegian

Nori zuzendua: 10 urtetik gorako haurrentzat.

17:30 Sutegi udal liburutegian.

## USURBIL Sareren mobilizazioa

Euskal preso, iheslari eta deportatuaren eskubideen alde.  
20:00 Mikel Laboa plazan.

## LARUNBATA 01

## USURBIL Ongi etorri bilera bizilagun berriei

2024an Usurbila bizitzera etorritako bizilagun berriei ongi etorri eta harrera bilkura.

11:30 Udaletxean.

## USURBIL NOAUA! Kulturaldia : Orbeldiren "Iparrera Begira" ikuskizuna

2024an Usurbila bizitzera etorritako bizilagun berriei ongi etorri eta harrera bilkura.

Gonbidapenak doan usurbilkultura.eus plataforman edo NOAUA! K.E.-ren egoitzan.  
19:00 Sutegin.

## IGANDEA 02

## USURBIL NOAUA! Kulturaldia: "Itzal(iko) bagina" saioa

Bertsoa oinarritzat duen antzerki ikuskizuna. Sarrerak usurbilkultura.eus plataforman edo NOAUA! K.E.-ren egoitzan.

18:00 Sutegin.



Larunbat honetan Sutegin arituko dira, iluntzeko 19:00etan.

## Orbeldiren 'Iparrera Begira' ikuskizuna

Bigarren urtez jarraian, azarotik otsailera aurreratu du NOAUA! Kultur Elkarteak Kulturaldia. Kultur ziklo honi hasiera emango diona Orbeldi dantza taldea izango da, Sutegiko auditorioan oholtzaratuko duen 'Iparrera begira' ikuskizun berriarekin.

Usurbilgo dantza taldetik aurreratu dutenez, Ipar Euskal Herrira begira jarriko gaitu emanaldi honek. "Jakina denez Lapurdi, Baxenafarroan eta Zuberoan badu-

te dantzarako ohitura, baita hauekin jolasteko gaitasuna ere".

## Gonbidapenak eskuragarri

Emanaldia larunbat honetan izango da, iluntzeko 19:00etan Sutegiko auditorioan.

Sarrerak doakoak izango dira, baina gonbidapen gisa eskuratu beharko dira alde aurretik, usurbilkultura.eus plataforman eskuratuz edota NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan bertaratuz.

## Xake tailerraren bigarren txanda

Lehenengo asteko saioan, 6 urtetik gorako gazteekin osatu zen tailerra. Ostiral honetako deialdia ordea, 10 urtetik gorako haurrei zuzendua dago. Arratsaldeko 17:30ean batuko dira Sutegi udal liburutegian baina alde aurretik eman behar da izena.

## Datozen bisita gidatuak

Urtarrilak 31, ostirala  
10:00-11:15 Zaintza-  
ren Usurbil bisita  
gidatua.Otsailak 8, larunbata  
11:00-12:15 Gerraren  
Memoria Ibilbidea,  
bisita gidatua.Otsailak 9, igandea  
11:00-12:15 Museoa  
Irekia bisita gidatua  
(erdaraz).Otsailak 22, larunbata  
11:00-12:30 Salbato-  
re Elizaren ondarea  
ezagutzeko bisita  
gidatua eta organo  
erakustaldia.Otsailak 23, igandea  
10:00-13:00 Usurbil-  
go Sagardo Kulturari  
buruzko bisita gida-  
tua.Otsailak 26,  
asteazkena  
10:00-11:00 Zero Za-  
bor bisita gidatua.Otsailak 28, ostirala  
10:00-11:15 Zaintza-  
ren Usurbil.Izen-ematea:  
650usurbilbizi.eus

**Inaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
info@inakiturgintza.com • www.inakiturgintza.com  
**600 024 825**

**JUANTXO BURDINDEGIA**  
Zubiaurrenea 8, USURBIL  
**943 37 00 08**

**Parti**  
Parti  
- bazkariak EGUNERO  
- afariak ostirala eta larunbata  
© 943 362725 • © 688 690 361

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE!**  
www.noaua.eus

Haritz, Hernani  
24/11/19 Donostia Ospitalea

## Gipuzkoa egunero sortzen da.

Pertsonen ongizate integral handieneko  
lurraldea izatea da gure asmoa.

**GIPUZKOA**  
Ekin. Zaindu. Bizi.

# ORIANTE BHI

Matrikulazio epea OTSAILAK 3tik 14ra

- 12-18 urte bitarteko ikasketak
- DBH - Batxilergoa
- Jangela zerbitzua
- Euskal kultura eta kulturartekotasuna bultzatuz
- Hezkidetzak
- Agenda 2030
- Mugikorrik gabeko ikastetxea
- ...

## ATE IREKIAK

OTSAILAK 5 18:00-19:00

Landaberri eraikinean!

943 899494

info@oriarte.eus

Landaberri eraikina (DBH1/2)

Pintore kalea 2

Larrekoetxe eraikina (DBH 3/4 eta Batxilergoa)

Buenos Aires aldapa 1

Lasarte-Oria

www.oriarte.eus



**ORIANTE**  
Institutua





**Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:**

- **0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.**
- **Hezkuntza Integrala:** Konpetentzietan Oinarritutako Hezkuntza.
- **Hezkuntza eredu propioa:** Konfiantzaren Pedagogia egitasmoa garatzen dugu.
- **Ikastola Berritzailea:** eraldaketa didaktiko, metodologiko, eta teknologiko etengabea sustatzen dugu.
- **Ikastola Euskalduna:** euskaraz irakatsiz eta ikasiz, euskaraz biziz, euskaldun konprometituak hezten dihardugu.
- **Irakaskuntza Eleanitza:** ingelesa 4 urtetik aurrera eta frantsesa, hautazko gaia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- **Herritarra:** Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildutako ikastola.
- **Ikastola Inklusiboa:** guztion ikastola bultzatzen dugu, aniztasuna, garapen- eritmo eta behar espezifikoak aintzat hartuz.
- **Baso eskola:** basoa gela bihurtzen da. Espazioa eta bertan aurkitzen diren naturako elementu guztiak ikasteko baliabide dira.
- **KiVa ikastola:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean 2017tik aurrera beste 56 ikastolekin batera.
- **Autobusa** auzo eta herrietara: Santuenea, Aginaga, Zubieta eta Lasarte.
- **Jangela:** bertan sukaldatutako herriko produktuak.
- **Zaintza zerbitzua:** 08:00etatik 09:00etara eta iraila eta ekainean 14:30 16:30era.
- **Zirimara Proiektua** (eskola kirola eta aisialdia).
- **Beka sistema propioa:** kuoten %100 bonifikatua.

*57 urteko esperientzia Usurbilen.*

**Matrikulatzeko epea** (3 urtetik-16 urtera)

Otsailaren 3tik 14ra (biak barne)

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6

LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12

DBH: 12 - 16



**943 361 216**

**Udarregi Ikastola**

Gernika ibilbidea. USURBIL

[www.udarregi.eus](http://www.udarregi.eus)